

Musikari handien ondoan

Lehen hippya izan zen Boni Aldaya ▶ 2-3



Adunak eta Tolosak elkartasuna azaldu dute Sahararen aldeko festetan

JOKUAK ▶ Adunan Txan magoa aritu zen hurrekin; Tolosan haima izan zen egun osoan jarrita ▶ 7



Egun osoan zehar izan zen ikuskizunik Tolosako plaza Berrian, Sahararen aldeko festan. INIGO ASENSIO



DANI GIBELALDE

Moto eta zaleen bilkura izan zen atzo plazan

IBARRA ▶ Jokuak, bira, afaria eta kontzertua izan zuten; gaur bira eta bazkaria izango dute II. Moto Langostino Festan ▶ 6



LANDARRI, S.L

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

- Kanposantuko Lanak**
- Ehorzketak
 - Lurpetik ateratzea
 - Gerakinen lekualdatzea
 - Gerakinen errausketa
 - Errausketa zerbitzua
 - Hilerraren proiektuak
 - Hilerraren eraldaketak
 - Eraikuntza ezberdinak
 - Hilobien apainketa
 - Hilarriak
 - Panteoiak
 - Hilobiak
 - Estelak
 - Fotozeramikak
 - Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behea - 20400 TOLOSA
Tel.: 943 67 01 14 - Fax: 943 34 04 67 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552
posta elektronikoa: landarris.l@terra.es

ALEGIA ▶

Gaur bukatuko dira Karmen jaiak

Txintzarria erreko dute gauean ▶ 5

www.landrover.es



Freelander Td4 manuala. Kontsumo konbinatua 7,6 l/100 km. CO₂ isurketak - 205 g/km

FREELANDER BERRIA NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak

EUROLAN 4x4

Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
TeleFonoa: 943 33 10 06 • www.eurolan4x4.com



UZTURRETIK ▶
AGUSTIN AMIANO

Kukuak ihes egin du

Azken egunotan itxaropen doinua eskaini ondoren, «to» esan eta aldi baterako ezkutatu da. Nekez erakutsiko ditu luma luzeak nahiz bere doinu lotsagabea maiz adierazi. Hilabetetan zain izan gaitu poltsikoan txanpon bat, karpetan sei asmo, hartuta. Baina hurbiltzeko itxura egin ondoren ihes egin du.

Eta udaletxean jarri duen arrautzak bere fruitua eman du, baina ez du errukirik izan gainontzeko hegaztiekin. Hasierako hitz goxoak mikatzak bihurtu dira. Izan ere, inguruko txorikumeak baino sendoagoa baita eta erraz uxa baitezake ahots batek herriaren borondatea.

Hainbat herritan piztutako argi txikia itzali egin du, hainbat herritarrek elkarrizketarako egindako deiari, berak dakiena egin, kuku egin, eta ihes egin du. Baina txantxan-gorriak ez du ulertzen kabi berean, udal berean, zergatik ez diren kabitzen. Eta ez daki zer egin duten hainbat eta hainbat lagunek kabi horretarako eskubiderik ez izateko.

Baina kukua ez da edonor eta denekin hitz egin ondoren bere hegaldia goitik egin nahiago duela erakutsi du, behetik baino.

Orain joan da, edo isildu da behintzat. Nik joan dela esango nuke eta bere hegaldia luze samarra izango ote den beldur naiz. Urrunago egingo ditu lagunak agian, bera bezain sendoak, bera bezain boteretsuak. Baina beharbada, datorren udaberrian ez du azaldu beharrik ere izango eta horrela habiaren neurriaz hitz egin beharrik ere ez da izango.

Halere, herritarrak zain izango ditu, lehen kuku hotsa entzun aurretik txanpona poltsikoan izango dute eta egoera konpondu nahian mahai baten inguruan esertzeko prest izango ditu, gaitu.



Karmen jaien hasiera Alegian

ASTEKO IRUDIA ▶ Urte osoa horren zain, eta iritsi dira Karmen jaiak Alegiara. Asteazkenean hasi ziren txupinazoarekin —argazkian— eta gaur amaituko dira. Bitarte horretan nahiko

musika, dantza, joku, kirol, omenaldi, inaugurazio, e.a. izan da egitarau ofizialean eta alternatiboan. Eguraldia lagun, giro aparta izan da Alegiako jaietan. OLAJA ESKITXABEL

BONI ALDAYA ▶ KONZERTU PRODUKTORE

«Oraingo musikariak biguinagoak dira, kontrolatuagoak»

Munduari bira eman dio; Frank Sinatratik hasita, musikari askorekin aritu da lanean, Operacion Triunfo arte; zezen tertuliakide; 68ko maiatzan Parisen... eta amezketarra

JOXEMI SAIZAR

Ordu eta erdian grabagailuaren pilak bukatu ditu bere hitz jarioak. Egunero, urte osoan, Kontxan bainatu eta korri eginez lortutako kolore eta gorpuzta du. Gizonen estetikari garrantzi handia ematen baitio. Horri metrosexuala deitzen omen diote orain. Bere Harley Davidson motoaren burrunbak agurtu gaitu, San Frantzisko kale osoa begira utziz.

Nondik amezketarra?

Albitxuri Handin jaio nintzen, amaren baserria, harri ospetsua duena. Donostiara joan serbitzera eta aita ezagutu zuen, kamiolalaria, Oderizkoa.

Eta nondik datorkizu bidaia-tzeko zaletasuna?

Amarengandik. Gauzen bilaketan dago nire desberdintasuna jendearekiko. 17 urterekin Parisera joan eta 68ko ezagutu nuen bohemio gisa, baina ez ginen enteratu. Gero Marokon egin nuen urtebete, hango uztza osoa errez. Orioko Xixario erretegian txuleta jan eta sagardoa edaten nuela egin nuen amets eta itzuli egin nintzen. Torremolinosen uda batez gogo bezala aritu nintzen. Karlos Argiñanok beti esaten du Zarautzen azaldu zen lehen hippya izan nintzela: hankutsik, pamela urdina, bonbatxak, alkandora moroa... Rioko inauteria duela 28 urte ezagutu nuen. Orain dela gutxi Aljeriako Saharan zeharkaldia egin dut alabekin.

Nola iritsi zara musikari ospetsuekin egotera?

Aseguro etxe batean hasi nintzen botones bezala lanean. Batxilerra eta master antzeko bat egin nuen. Musikari handien kontzertuak aseguratzeko ditugu eta produkzio lanetan ere aritzen gara: kamioiak, eszentokiak montatu, eskatzen dituzten gauzak...

Zein izan da egin duzun bira-rik garrantzitsuenak?

Inoiz egin den handiena Operacion Triunfo 1 izan zen. 30 kontzertu egin genituen eta milioi bat ikusle: bi aldiz Bernabeu bete (100.000), Sevillan 60.000, Mallorcan 50.000... Kontuan izan Rollings Stones-ek Madrilen 65.000 izan zituztela. Chenoa monstroa da, in-

darra eta izaera du. Bisbal fenomeno mediatikoa da. Bustamante igeltseroa zen, herrian parranderoa. Rosak zorte txarra izan du, berriro argaltzeko esango nioke, fisikoak garrantzia du eszenatokian.

Ondoren OT-ek ez dute arrakastarik izan.

Ez dute asmatu, ez dakite zergatik, musikari hobeak dira 2. eta 3. edizioak, guapagoak. Agian ez direlako igeltseroak edo oilasko saltzaileak.

Bitxikeriarik?

Frank Sinatrarera Bartzelonako Palau Sant Jordi antolatua genuen. Abio pribatuan etorri zen eta kamerino ere ez zuen behar izan, lan handirik ez zion eman. Pantaila handiak eskatu zituen, letra handiz jartzeko, irakurtzeko. Ez zuen ikusten ia, zahartuta zegoen, 80 urte izango zituen. Eta eskailerarik ez izatea. Whisky hartzen —benetakoa— eta erretzen atera zen. Oraingo musikariak biguinagoak dira, kontrolatuagoak. Gazteen artean Oreja de van Gogh fenomeno bat da. Bere musika konposatzen dute eta 2,5 milioi disko saldu.

Gauza arrarorik?

Izar handiek arrazoizko eskaberak egiten dituzte. Uda batean 80 *bolo* dituzte eta logikoa da minimo batzue eskatzea. Paul McCartney exigentzia asko ditu, baina supermillonarioa

IRITZIA ▶ ENEKO KARRERA (GIPUZKOAKO EHNE-KO LEHENDAKARIA)

Ingurumena turismoaren zerbitzura

Azkenean, sei urteko ibilbidearen ondoren, Ataungo Udalak lortu du bedeinkazioa ematea («ditxo-sozko») Lareoko proiektuari. Azkenean, Eusko Jaurlaritzak onartu du Aralarko Parke Naturaleko Araudia aldatzea, horretarako Aralarko Natur Baliabideen Antolamendu Planaren Dekretua aldatzea onartuz. Zoritxarreko notizia gure ustez, hainbeste esfortzu pikutara joango zela aspalditxo bagenekien ere, Lareoko urtegiaren ondoan, Marumendin, turismo etxolak, jatetxea, igerilekuak, kirol instalazioak, eta abar... ikusi beharko genituela bagenekien ere.

Lehenago zurrumurruak egon baziren ere, ofizialki 1998ko otsailaren 17an jakin zen guzti honen berri, Ataungo Udalak, Aitor Auzmendi orduko alkatearen eskutik, Gipuzkoako Bolelinean Ataungo planeamenduko arauen aldaketa publikatu zuenean. Berehala aurka jarri ginen taldeak: Nekazal Turismo Elkartea, Aralar Izadi Taldea, Ataungo Herri Ekimena, Eguzki eta Gipuzkoako EHNE. Arantzadi bera ere aurka posizionatu zen, «eremu karstiko» izateagatik babestu beharreko zonaldea izaki. Udalak kasurik ez.

Foru Aldundiko Hirigintza Departamentuaren iritzi ere 168/1994 Dekretuz onartutako Aralarko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana garbiki urratzen zuen proiektuak, besteak beste Dekretuak ez baitzuen eraikuntza berririk onartzen, baserri gunetan izan ezik.

Nekazaritza Departamentuaren txosten teknikoak aurkakoak izan ziren, DOTen aurkakoa zela esanez, eta Parkeko araudiaren aurkakoa zela esanez. Aurka posizionatu ginen talde guzti horiek erabili genituen argumentazio juridiko berberak. Arazo politiko gehienak parkearen araudia ez betetzeak suposatzen zituen, beste urraketa, DOTena alegia, ohitura bihurtu baita da aspaldian, «normaltza» hartzen delarik.

Gauzak honela, zer erabaki hartu zuen Ataungo Udalak? «Parkearen araudia ez badu betetzen, Parkearen araudia aldatu eta kitto!» Esan eta egin. Bere atzetik erakunde guztiak. Eusko Jaurlaritzak ez du lotsarik izan enpresa pribatu batek Marumendin jarri zuen asmoa egi bihurtzeko. Enbata Etxegintza enpresak, hain zuzen. (Umorez ba-

nengo, txistea egingo nuke izen horrekin, baina beste batean izango da). Foru Aldundiak ere, Aralarko Patronatuko Lehendakaritza duenak, ez du arazorik jarri.

Lareoko auzi honetan gauza gehiegi dira salagarriak. Batetik, salatzeak da sortzen den segurtasun juridiko eza. Legea egokia ez den bakoitzean aldatzen hasiko bagina, zein defentsa dugu herritarrok? Ez al da hau boterea erabiltzeko modu okerra edo gehiegikeria? Martxa honetan, merkatuetako salgaia izango ote da? «Legeak salgai! Neurri eta prezio guztietakoak dauzkagu! Neurri eta prezio guztietakoak dauzkagu!» (abisatu dizuet umorez ez nengoela). Bestetik, salatzeak da DOTen urraketa larria, izan ere babes bereziko inguruetan ez da al-

saldi intentsiborik baimentzen. Eskerrak! Beste alde batetik, salatzeak da parkeko araudian ganaduari mugak jartzea, bertatik bizi diren baserriarrei betiko ohiturak aldaraziz, baina inongo lotsarik ez edukitzea turismoari dena onartzeko garaian. Proiektu honek zenbat azpiegitura eskatuko ditu? Eta etorkizuneko apliaziorik? Port Aventura edo «Aralarventura» ikusi beharko ote dugu hemendik 10 urtera? Azkenik, agrario konparatibo sortzailea da gure ustez, nekazal turismo ostatuak dituztenekin alderatuz, Aralarrek oraingo duen eskaera turistikoak nahiko ondo asetzen delako. Konpetentzi desleiala izan daiteke.

Argi dago bide arriskutsua ireki dutela Ataungo Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Aralarko Patronatuko Lehendakaritzak, hau da, Nekazaritza Departamentuak. Batzuk akzioz, besteak omisioz, naturaguneen babesaren «deskafeinatze festa» denen begibistan jarri dute.

Azkenik, nire buruari galdetzen diot non ote dagoen artzaien txaboletarako bideak egitearen kontra agertu zen hainbeste «ekologista», proiektu honen aurrean bere salaketa serioena egiteko. Hamaika ikusteko jaio ginen, eta oraindik lau besterik ez dugu ikusi.

ARAUDIA

Zer erabaki hartu zuen Ataungo Udalak? «Parkearen araudia ez badu betetzen, araudia aldatu eta kitto»

PERTSONALKI ▶

▶ Duela 56 urte jaioa Amezketan ▶ Hippy ▶ Aseguro ebe batean lanean ▶ Kontzertu eta bira ugari produktio lanetan ▶ Onda Cero irratan zezen tertuliakide ▶ Donostian bizi da.

Musikari jatorrena? Joaquin Sabina, baita parrandarako. **Desatseginena?** Paul Simon, segurtasunarekin obsesionatua. **Arrarona?** Pavarotti Bilbon, baina normala da aulki altuak eskatzea, bere pisuarekin. **Txunditu zaituena?** Rolling Stones, denagatik.

ZEZENAK

«Zezezena gure festa da; Sevillan zaldiz mugitzen dituzte zezenak, errekorrea hemengoa da»



izanda, egin dezake. Okerrenak erdipurdikoak dira. Pantoja Benicassimen berandu iritsi zen, entsatu gabe, bi Yamaha handiren artean. Barregarri.

Zergatik zezenale?

Donostiako gaueko girotik. Gure festa da. Behi basatiak baziren 1550ean, sokamuturra egiten zen Tolosan. Sevillan zaldiz mugitzen dituzte zezenak, errekorrea hemengoa da. **Irrati batean aritzen zara.**

Kritikaria ez naiz. Donostiako zezen-plazara 1.500 zaletu eta bestelako 9.000 doaz, ni bezalakoak. Hitz teknikoak esaten badira inork ez du ulertzen. Tertulian beste horietzat ari-

tzen naiz: ikusleen janzkera, toreatzaileak andregai duen, zer kotxe, nola janzen den, zer musika gustatzen zaion... Sentitzen dudana zezenketa ikustean, nahiz teknikoak ez izan ona. Arrakasta du saioak.

Zer moduz Tolosakoa?

Bronka alkateari. Tolosako plazak zeresan asko du. Plazarrik gabe ez da ulertzen festa. Herri kirolak, Inauteriak... baina batez ere zezenak. Bestela kiroldegia egin dezatela. Udalak lagundu egin behar du eta Azpeitian bezala feria txiki bat egin, ez zezenketa bakarra. Eskerrak ere koadrila bat dagoen dirua jartzen, bestela...

JOXEMI SAIZAR

LARRAUL ▶ AUZOLANDEGIA

IÑIGO TERRADILLOS

Udako oporraldian egun batzuk etxetik kanpo, naturaren inguruan igaro, paisaia ederrez babesturik, zure laguntza eskaini eta gainera lagun berriak egiteko aukera izaten da auzolandegietan.

Honen guztiaren adibidea izan dugu egun hauetan Larraulen; bertan, pasa den uztailearen bostean hasita eta gaur arte, hamabost eta hamasei urte bitarteko hamalau gipuzkoar aritu dira Erretore etxea zaharberritze lanetan.

Astelehenetik ostiralera goizetan egin dute lan eta arratsaldeak eta asteburuak aisialdirako izan dituzte. Goizeko bederatzietan ekin diote egunero etxeko aurrealdea konpontzeari, lau bat orduko lana egin dutelarik; igeltseroei lagundu diete horma pikatu eta zarpeatzan eta honetaz gain pintatzen ere aritu dira.

Erretore etxea

XVIII. mendeko etxe handi hau nekazal giroko arkitekturearen adibide nagusia da. Garai hartan, serora eta apaizen bizilekua zen eta nakazaritzarako eta abeltzantzarako egokitu zegoen. 1717ko abenduaren 12an erre egin zen etxea eta erabat hondaturik geratu zen. Eztabaidak izan zituzten, sua norbaitek eragin zuela pentsatu baitzuten alde batetik, eta bestetik, besterik gabe sortua izan zela ziotenak baitzeuden.

Kontuak kontu, 1807an etxea berriro eraikitzen hasi ziren. Litzentziarekin eta eraikuntzaren proiektuarekin izandako arazoak medio, etxea berriro altxatu zuten, gaur egun duen itxura eman ziotelarik. Erretore etxea Hezkide Eskola, aisialdi taldeak erabili ohi du azken urteetan.

Auzolandegiaren helburua

Itxura kaxkarra ageri zuela eta, eraikin historiko hau konpondu eta zaharberritzea izan da auzolandegi honen helburua



Hamalau gazte aritu dira Erretore Etxeko etxaurrea zaharberritze lanetan. IÑIGO TERRADILLOS

Ondareak berritzen

Larraulen izan dira uztaileko lehenengo bi asteak 14 gazte auzolandegian Erretore Etxeko etxaurrea konpontzen

nagusia. Iaz ekin zioten lan honi, etxaurre nagusiarekin aritu ziren eta egindako lana nabarmena da, itxura dotorea baitu orain. Aurten, berriz, alboko horma konpontzea egokitu zaie, besteak beste, gipuzkoar gazteei.

Auzolandegiaren arlo tekniko eta aktibitateen prestaketa Aranzadi zientzia elkartearen esku egon da, eta antolatuta, berriz, Gaztekutxak egin du, Kutzaren gizarte ekintzak. Duela bederatzita urte hasi ziren honelakoak antolatzen, uda era desberdin batean igarotzeko aukera ematen delarik.

Aranzadi zientzia elkarteko-

entzat, Gipuzkoako ondare kulturalaren berreskurapenean lan egitea da helburua; auzolandegietan dibertitu eta ondo pasatzeaz gain, gure ondarearen ezagutzaren berri izan dezaten eta beraiek ondare horren egokitze prozesuan parte hartzen dutela sentiarazten saiatzen dira.

Gainera, Hezkide Eskolako hiru monitoren ere parte hartzen dute proiektuan.

Aisialdiare

Lan handia egin eta gero aisialdirako tartea ere izan dute gazteek; espeleologia landu dute,

pilotagintza ikastaroa izan dute eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ere izan dute pilotaren hainbat modalitateetan, eta Larraul eta ingurunea ezagutzeko mendi ibilaldiak ere antolatu dituzte arratsaldeetan.

Lehenengo asteburuan Murrillo de Gallegon (Zaragoza) izan ziren, rafting, eskalada, mendi ibilaldia eta urpeko igeriketa egin dutelarik eta aste bukaera honetan kostaldera egin dute irteera.

Gaurko, berriz, garbitze eta atontze lanak utzi dituzte, azken eguna da eta dena txukun utzi beharra baitago ondoren etorriko direnentzat. Pena handiz esango diete agur elkarri, lagun berri asko egin dituzte eta oso gustura ibili baitira. Baina, agian datorren urtean egingo dute topo berri, asko izaten dira eta errepikatzen dutenak.

Badira, halere, auzolandegi gehiago uda honetarako prestaturik; bihar bertan Berastegin ekingo diote hainbat gaztek Plazaolako burdinolaren berreskuraketa lanei, eta aurrerago, Asteasun, Albistegi etxeko aurrealdea zaharberritzeko proiektua dute.

MIKEL ERRAZKIN ▶
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

«Ondasunen ezagutza bultzatzea da helburua»



I. TERRADILLOS

Mikel Errazkin, 27 urteko anoetarra, Aranzadi zientzia elkarteko teknikaria da eta bost urte daramatza auzolandegietan lanean. Esperientzia paregabea dela dio, batetik gauza desberdinak egiteko aukera ematen dutelako eta bestetik lagun asko egiten delako auzolandegi hauetan.

Gazteek zer ikasten dute auzolandegi hauetan?

Egun hauek primeran pasatzen dituzte eta hori oso garrantzitsua da, baina gure benetako helburua ondasunaren ezagutza bultzatzea da; gazteek inguruan dutenaz konturatzeta eta merezi duen garrantzia ematea lortu nahi dugu.

Urteen arabera gogo gehiago erakutsiko dute etortzen diren gazteek.

Gaztetxoaren eta helduagoren artean bereizketa egiten dugu. Gazteen auzolandegiak orokorragoak izaten dira eta aisialdirako denbora gehiago izaten dute etortzen direnek; helduagoekin, berriz, sakondu egiten da arlo desberdinetan. Biologia, arkitektura edo historiari garrantzi handiagoa ematen diogu, gai horiek ikasten dituzten ikasleak izaten baitira normalean.

Gustura igarotzen dituzte egunak, errepikatu ere egiten dute eta.

Oso pozik gaude lortzen ditugun emaitzekin eta gure helburua betetzen dela iruditzen zait. Gainera, gazte askok auzolandegia errepikatu egiten dute eta hori seinale ona da. Lagun asko egiten dira hemen eta udako oporrak betiko moduan pasa ordez, gauza desberdinak egiten eta ikasten dituzte hona etortzen diren gazteek.

ALEGIA ▶ KARMENAK



Sardinak eta sagardo banatu zituzten atzo Alegiako plazan, Karmenen baitan. G. AZKUE

Guztientzat ekintzak Karmenetako laugarren egunean

Haurrek arrantza lehiaketa eta haur jolasak izan zituzten, helduentzat plater tiraketa edota bazkaria antolatu zituzten

GARAZI AZKUE

Laugarren eguna zuten atzo gaur bukatuko diren Alegiako Karmenek. Goizean goiz hasi zen festa Alegin sokamuturrekin. Goiz erditik aurrera diena, plater tiraketako entrenamendua edota haurrentzat arrantza lehiaketa izan ziren herriko txoko ezberdinetan.

Eguerdi partetik aurrera Lazkaoko Antzar Gazteak txaranga instrumentuak astintzeari ekin zion; eta plazan, edatekoa eta jatekoa biltzen hasi zen: sagardoa eta sardinak nahi adina izan ziren.

Jai alternatiboak eguerdian hasi ziren, lo egiteko beta hartu ondoan, plaza txukundu eta mahaiak jartzeari ekin zioten herritarrek bertan bazkaltzeko. Eta arratsaldean, aspaldi ez bezala, karro klandestinoaren kalejira egin zuten, karroan musika hartuta.

Goizeko entrenamenduek arratsaldean izan zuten fruitua, Laugarren plater tiraketa izan baitzen bazkalostearen.

Eta gauean, kontzertuekin zuten herritarrek hitzordua: Afrika, Lor edota Patxi Saiz egon ziren, besteak beste, karmenetako laugarren egunean.

Frankoni, «bai noski»

Haur Eskola lortzeko nahian, festetan ere lanean dihardute alegiarrak. Udaletxeko balkoian Frankoni haur eskolaren aldeko maindirea jarri dute, «Bai Noski. Frankoni Haur Eskola» dioela. Baina Udalean ezezik, inguruko etxe askotako balkoietan ere ikus daitezke Frankoniren aldeko ikurrak. Herritarrek pegatikan ere kaleratu dituzte. ◀



Udaletxeko balkoia. G. AZKUE

ASTEASU ▶ SANTAMAÑAKO JAIAK

Herri kirolak eta toka ermitaren bueltan

Gaur izango da jaietako azken eguna; IV. Zaldi Lasterketa 19:00etan hasiko da



Herri kirolen saioa Patxi Altunari eskaini zioten. G. AZKUE

G. AZKUE

Santamañako ermitaren bueltan festa giroa izan da azken bi egunetan, eta gaurko egunean ere musika eta ekintzak izango dira Asteasuko inguru honetan; izan ere, Santamañako jaiak dira.

Atzoko eguna norgehiagoken eguna izan zen Santamañan. Goizean, mezaren ondoren, herriko gazte eta helduak bildu ziren herri kirolean parte hartzeko.

Kirolen saioa, Patxi Altuna, Urkidi baserria erre zenean zendutako asteasuarrari eskaini zioten, festa hauetan parte hartzen baitzuen; bere omenez minutu bateko isilunea egin zuten. Harrijasotzen, lasterka edota trontzan aritu ziren taldeka. Mañukorta eta Zeberio betsotan, eta, Laja eta Izer trikitiarekin, giroa alaitu zuten herri kirolen aurretik eta ondoren.

Arratsaldean jolasak izan zituzten haurrek, eta ondoren, IV. Nazioarteko Toka Txapelketari ekin zioten Santamañan.

GAURKO EGITARAUA ▶

ALEGIA

- Egitarau ofiziala.**
- 09:00.** Sokamuturra.
- 10:00.** Diana herriko txistulari eta trikitilariak alaituta.
- 11:15.** Meza nagusia.
- 12:30.** German Inxausti txistulariari omenaldia; txistu kontzertua herriko plazan.
- 18:00.** Pilota partidak.
- 19:30.** Euskal dantzak Udaberri taldearekin.
- 23:00.** Etxabe anaia.
- 24:00.** Txintxarriaren erreketak.
- Jai Alternatiboak.**
- 19:00.** Interruptus taldearekin kale antzerkia.
- 21:00.** Zahagi ardoa.
- 23:00.** Herriko bertsolariak.
- Jarraian.** Kontzertua Bulebarrean: Zorabiok eta Trikitixa eta Alboka taldeak.

ASTEASU (SANTAMAÑA)

- 10:00.** Andazarrateko XX. lgoera. Federatu gabeko txirindularientzat.
- 11:15.** Meza nagusia.
- Ondoren.** Herri kirolak. Peñagarikano eta Telleria bertsolariekin eta Laja eta taldearekin.
- 16:30.** Kalejira.
- 19:00.** IV. Zaldi Lasterketa..
- Gauean.** Laja eta taldea trikitilariak.
- Gauerdian.** Tranpazuloren jaitziera.

ALBIZTUR (SANTA MARINA)

- 12:30.** Meza nagusia.
- 18:30.** Herri kirolak.
- Ondoren.** Bertsolariak, Beñat eta Unai Gaztelumendi.

Bihar zaldi lasterketa

Biharko egunean, berriz ere, egitarau luzea dute Santamañan. Lasterketa eta herri kirolez gain, Santamañako IV. Zaldi Lasterketa izango da. 19:00etan bilduko da jendea Atxotako ibilbidean. Aurten gainera, zirkuito baten barruan lehiatuko dute zaldiek, eta ez Asteasutik gora aurreko urteetan bezala. Lasterketan hamabi zaldi bilduko dira nor lehenago iritsi helmugara.

ISKIÑA

TABERNA

Goizean Salda
Gauean martxa!
INTERNET

San Juan, 59 ALEGIA
Tlf.: 943653097

ONDA

Ondo pasa festak!

janaridenda

San Juan, 44 • ALEGIA
Tel.: 943 65 30 40

HORTZ-KLINIKA

Manuel Renobales Iturbe doktorea
M^o Pilar Martínez Andueza doktorea

Larraitz, 15-1.esk.
Tel.: 943 65 41 12

ALEGIA

IBARRA ▶ II. LANGOSTINO MOTO FESTA

Motor burrunben festa

Motozale eta era guztietako motorren bilgune da egunotan Ibarra; motorrekin jokuak eta bira egin zituzten atzo; gauean, afaria eta kontzertuak izan ziren

DANI GIBELALDE

Beltzeko jakak, kamisetak eta galtzak nabarmendu ziren atzo II. Langostino Moto Festako lehen egunean. Euskal Herriatik nahiz atzerriatik etorritako motozale ugari bildu ziren Ibarra, eta giro bikaina jarri zuten herriko kale bazterretan. Era guztietako motorrak ikusi ahal izan ziren, eta motorraren erakustaldiak egin zituenik ere izan zen. Motorren burrunbak herri guztian entzun ahal izan ziren.

Bazkalostean elkartu ziren lehenik motozale guztiak. Ondoren, motorrekin joku desberdinak egin zituzten, eta herriko kaleetatik barna ere bira bat egin zuten. Hortaz, motozale ugari herria hobeto ezagutuko aukera izan zuten.

Afariaren ondoren, San Bar-



Joku desberdinak egin zituzten atzo San Bartolome plazan zenbait motozalek. DANI GIBELALDE

tolome plazan Arima Beltzaren, Mutuo Desprezioaren eta DJ Tenaren kontzertuek alaitu zuten gaua.

Gosaltzeko elkartu ondoren, gaur goizean Gipuzkoatik bira bat egingo dute motozaleek: besteak beste, Larraitx, Altzo

eta Zaldibia zeharkatuko dituzte. 13:00ak aldera bueltatu dira berriro Ibarra, eta bazkaria-ekin amaituko da festa.

AZOKA ▶

Erosle asko, baina berrikuntzarik ez atzokoan

Tomate eta leka kopuru handia izan zen; perretxikuak, ordea, gutxi izan ziren

PABLO ALBERDI

Egn polita eta animatua izan zen atzo azokan. Eguraldia lagun, erosle eta bisitari asko joan ziren azokara, eta saltaileek salmenta onak lortu zituzten.

Produktuen eskaintza ere oso zabala izan zen. Urte sa-soi honetan, barazki produktioa oso handia da, eta horren isplu izan zen atzo azoka. Leka kilo asko eta oso kalitate onekoak izan ziren, eta tomate kopurua ere izugarria. Besteak beste, pepinoak, azak, erremolatxak, porruak, espinakak ere ugari zeuden. Perretxiko kopurua, berriz, nahiko eskaxa izan zen. Dirudienez, azken egunetako eguraldia ez da oso aproposa izan produktu horrentzat. 40 bat kilo onddo, bi kilo gibeldurdirin eta beste bi ziza besterik ez ziren ikusi.

ATZOKO AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Onttoa	20	
Ziza	20	
Gibelurdina	20	
Arkumea	3	3,2
Indioilarra	4,3	
Babarrun zuria	6	12
Pipermina	7	
Piper berdea	4,5	1,5
Tomatea	3	3,5
Patata	0,66	1

Produktu ekologikoak

Udarea	1,92	2,72
Sagarra	2,13	3
Inkaurra	4	6
Hurra	4	6
Dilistak	2,4	
Arroza	1,9	2
Arbi morea	3,97	
Tipula	1,74	2,01

Berdura plaza

Lilia	1,2	
Krabelin dozena	4,8	
Ziklamena	5,5	
Japoniar azalea	7,5	
Txililarra	4,5	
Geranioa	2,15	
Bitilore horia	2,5	6
Zinta	2,5	
Erromeroa	4	6
Xarbota	4	6



Kostako itzulia euskal selekzioaren alde

TOLOSA ▶ Denak ez ziren Tourra ikustera joan Pirinioetara. Argazkiko koadrila prestuak euskal selekzioaren alde kostako itzulia egin

zuen atzo txirringaz. Bidaniako aldapan gora larri ibili ziren batzuk, baina Azeptin eta Zarautzen berrindartu ziren. J.SAIZAR

TOLOSA ▶

Bihar paletako finalerdietako azken bikotea erabakiko da

D. GIBELALDE

Zabaleta-Urdanpilleta, Otermin-Goitia eta Apeztegia-Maiza bikoteak finalerdietarako sailkatu dira Tolosa CFren Paleta Txapelketan, multzoetako irabazle izan ondoren. Finalerdietarako laugarren bikotea bihar erabakiko da. Renobales-Imaz Lontxo-Nazabal eta Yugueiros-Aldazabal elkarren aurka ariko dira. Asteazkenean jokatuko dira finalerdiak, eta ostiralean, finalak.

OTEGI eraikuntzak, s.l.
Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA
Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

Euskal Herria, 56 • 20400 IBARRA
Tel. 943 67 58 77
Faxa: 943 67 21 40

Zumeta

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

TOLOSA-ADUNA ▶ SAHARAR FESTA



Umeak gustura aritu ziren, Adunan Txan Magoaren saioan. I.ASENSIO



Haimaren barnean tea dastatzeko aukera izan zuen jendeak. I.ASENSIO

Saharar umeentzako festa, atzo Tolosa eta Adunan

Kontzertuak, jokoak eta herri bazkariak antolatu zituzten Gipuzkoan diren saharar lurraldearen aldeko festan



Jokin Bildarratz Tolosako alkatea saharar lurraldearen egoeraz mintzatu zen Plaza Berrian. I.ASENSIO

IÑIGO ASENSIO

Sahararren aldeko ospakizun eguna izan zen atzo Adunan eta Tolosan. Adunan, 11:30ean eman ziztzaie ongiatorria umeei eta jarrera Txan magoaren saioa ikusi ahal izan zuten frontoian.

Hau amaitzean, bigantxak eta poneyak egon ziren eta ondoren herri bazkaria egin zen saharar umeekin. Bazkalostean jolasak izan ziren denontzat eta ondoren dantzaldia Aitor Furundarenarekin. Amaitzeko, txokolate beroa eta bizkotxoak jan zituzten gazteek.

Tolosari dagokionez, goizean hasi zen ospakizuna, haima (Saharako kanpadenda) jartzearekin. Herri bazkaria egin zen eta ondoren gazte-txoentzako jolasak antolatu zituzten. Ospakizuna amaitzeko saharar musika kontzertua ikusteko aukera izan zen.

Bestalde, goizaldean haimara joan zirenek, Saharako te tradizionala dastatzeko aukera izan zuten. Te honek esanahi berezia du sahararentzat. Gesmula eta Maclaja saharar ahizpek azaldu zioten HITZARI esanahi berezi hau. Behin tea egina dagoela, ura botatzen zaio gehiago egiteko. Horrela bigarren teak lehenak baino zapore apalagoa du, eta hirugarrenak bigarrenak baino. Saharrek bizitza eta tearen arteko berdintasuna egiten dute horretan oinarrituz. Hone-la, lehen teak bizitzaren garrantasuna irudikatzen du. Bigarrena, berriz, amodioa bezain gozoa da, eta hirugarrena heriotza bezain leuna.

Saharar ugari Tolosan

Saharar mordoia bildu zen atzo Tolosako plaza Berrian. Izan ere, Tolosan beti izan dira haien aldeko elkartasun ekimenak eta beraiek ere jakin badakite hori horrela dela. Saia, 10 urteko saharar neska gaztea ere, honen jakitun zen. Neskaxka hau Berastegiko familia batean hari da da pasatzen eta benetan gustura dagoela onartu zion HITZARI. «Jendeak oso harrera ona egiten digu hemen. Hain denbora gutxi daramadanez, ez naiz oso ondo moldatzen hizkuntzarekin, baina jendea oso pazientea da gurekin».

Tolosako alkateak, Jokin Bildarratzek, ongiatorria eman zien saharar gazteei. Honen ondoren, bere lurraldean jasan behar duten egoerari buruz mintzatu zen. «Nazio indartsuen jarrera arduragabearen aurrean, honelako ekimenak jendearen sentsibilizazioa sustatu behar dute, guztiak beren egoera lazgarriaren jabe izan gaitezen».

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaidea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, Iarriald: 461111
- ▶ San Esteban: 00 68 00
- ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
- ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (Iarrialdia)
- ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
- ▶ DYA: 67 25 36
- ▶ Ertzaingoa: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga J., M.J. Iraola, 10, (Tolosa). 943 67 24 38.
Erbiti O., Lizarraga, 7, (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Renault 19, 16 V. Egoera onean. Tlf.: 618 25 49 60.

Motoa. Motoa GO Aprilia SR-50, 7.700 kilometro eginak dituena. Salgai. Oso ondo zaindua. 1.500 euro. Tlf.: 943 69 03 82.

LAN ESKAINTZA

Taberna. Astebukaeratarako neska bat behar da barrarako.

Taberna. Tolosaldeko taberna batean lan egiteko neska bat behar dugu. P.K. 171, Villabona.

Alegian. Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko Alegian.

Ordutegia 10:30etik 14:30era.

Tlf.: 943 65 30 34 (deitu arratsaldetan).

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai





AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. II. Langostino Moto Festa: bira eta bazkaria.
Irua. San Miguel jaien bilera, bihar 19:30ean udaletxean.
Tolosa. Odol-ematea. Bihar, 18:30-20:30, Kultur Etxean.
Villabona. 8. Garagardo Azoka. 18:00-01:00.

JAIAK

Alegia (Karmenak; egitarau ofiziala). 09:00, sokamuturra; 10:00, diana; 11:15, meza; 12:30, G. Intxaustiri omenaldia eta txistu alardea; 18:00, pilota; 19:30, Udaberri taldea; 23:00, Etxabe anaiak; 24:00, Txintxarri erreketak.
Alegia (Karmenak; jai alternatiboak). 19:00, Interruptus taldearen kale antzerkia; 21:00, zahagi ardoa; 23:00, herriko bertsolariak; Zorabiok eta Trikitixa eta Alboka taldeak.
Albiztur (Santa Marina). 12:30, meza; 18:30, herri kirolak; Beñat eta Unai Gaztelumendi bertsolariak.
Asteasu (Santamaña). 10:00, txirindularitza: Andazarrateko XX. Igoera; 11:15, meza; herri kirolak eta bertsolariak; 16:30, kalejira; 19:00, IV. Zaldi Lasterketa; gauean, Laja eta taldea; gauerdian, tranpazuloren jaitsiera.

KIROLA

Tolosa. Finalerdietarako sailkatzeko partiduak. Bihar 19:00etan Berazubín.

ZINEMA

Tolosa. Ladykillers. 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean.



Tolosatik joan zirenak autobusez abiatu ziren goizean. J.SAIZAR



Hamaiketako ederra izan zuten ibiltariak Alkizako plaza. J.SAIZAR

Inguruko bazterrak ezagutzen

ALKIZA ▶ 'Ibilaldiak Tolosaldean barrena' liburuko lehenengoa egin zuten atzo goizean Alkiza inguruan; musika eta hamaiketakoa izan zuten ibiltariak

JOXEMI SAIZAR

Mendira joan, eguraldi ona tokatu, inguruko bazterrak eta txokoak ezagutu eta gainera bukaeran hamaiketako trikitixa musika-rekin. Ez dago gaizki. Horrela egin daiteke kirola.
Kaleratu berri den *Ibilaldiak Tolosaldean barrena* gidako lehenengo irteera antolatu zuen atzo Tolosaldea Tourrek. Adin guztietako mendizaleentzat prestatutako ibilaldi errazak dira, motzak eta gorabehera gutxikoak. Alkiza inguruko bi bide aukeratu zituzten: Aginagakoa eta Urdanesira joaten dena.

Mendizale talde polita bildu zen Tolosako Triangulo plazan. Autobusa hartu eta Alkizara joan ziren. Han bi taldetan banatu ziren, batzuk Aginaga aldera joan ziren, bost kilometroko ibilbidea. Gehixeago ibili nahi zutenek Urdanesikoa aukeratu zuten. Bidean, gainera, liburuaren egileen azalpenak jasotzen zituzten.



Trikitilariak musika jarri zuten eta barnetegiko haurrak dantza egitera animatu ziren. J.SAIZAR

Eta bukaeran, plazara iritsitakoan, modadutxoak prestatu zuten denentzat. Anoetako trikitilariak alaitu zuten saioa eta barnetegian euskara ikasten ari diren ikasle nafarrek dantza egiteko aprobetxatu zuten.

IBARRA LAN BERTIKALAK

MARGO LANAK - IGETSEROTZA - UR GIDATZEA - GARBIKETAK
APAINGARRI KONPONKETA - USOEN AURKAKO SISTEMAK

Azkué, 11 • 2.A • IBARRA
mug.: 619 877 397 - 677 667 278

Andamiorik gabeko lanak

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Julen Garaiburu Zubillaga
(Berastegi). Gaur 4 urte.
Zorionak ebekoan partetik.



URTE ASKOAN
Alaitz Azpiroz Balerdi
(Lizartza). Bihar 4 urte.
Zorionak familia guztiazen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.
Mila esker!

EZ ERABAKI ETORKIZUNA GU EZAGUTU GABE

ETORKIZUN HAUNDIKO LANBIDEA

- Erresuma Batuko Ilea-pandegiko III. Maila
- Nazioarteko Pivot-Point Diploma
- Gune Homologatua
- San Francisco, lanpostu indize handia
- Goizeko eta arratsaldeko txandak

San Francisco 39, behea
TOLOSA
Tel. 943 654361

GUREKIN, ZUZENEAN LANERA

www.centrosbeta.com